



Maite González
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

John Andueza	2
Sarrera	3

Prime-Time

• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	5
• Gertakizun nagusiak	5
• Egituraketa	8
• Pertsonaiak	9
• Baliabideak	11
• Iritzia	13
Bibliografia	15
Webgrafia	15

John Andueza

John Andueza Altuna (Burns, Oregon, Estatu Batuak, 1966) idazlea eta kazetaria da. Aita estatubatuarra eta ama gipuzkoarra izanik, AEBetan jaio zen, baina urte bat zuela aita hil eta Arrasatera joan zen bizitzera. Orain, nahiz eta Elgetan bizi, Arrasatekoa kontsideratzen du bere burua.



John Andueza kazetaritzan lizentziatua da EHUan. Bi aldiz irabazi du “Rikardo Arregi” kazetaritza saria. 1933tik ETBko hamaika saiotan aritu da zuzendari, aurkezle, gidoiari, edota aktore gisa, eta *Hor dago koska*, *Elkanotarrak*, *Goenkale*, *Hasiberriak* eta *Trikitraka Trikitron* proiektuetan aritu da, besteak beste. Baita zinemagintzan ere, eta *Laugarren Galeriatik*, *Bernar*, *Aita Guria* eta *Bilintx* laburmetriak zuzendu ditu, baita *Fatimetu* eta *Simplemente* luzemetriak ere. Azken urteetan literaturara dedikatu da nagusiki, baina telebistara itzultzea gustatuko litzaioke: “*Badira urte batzuk ez dudala telebistarako lanik egiten, baina gustura itzuliko nintzateke*”, esan du.

Telebista munduan egindako lanagatik ezaguna bada ere, idazle gisa, harrera ona edukitako gazteentzako hiru liburu ditu publikatuak. 2012an bere lehenengo nobela publikatu zuen Elkar argitaletxearekin, *Larunbatean Bukowskyn*, eta duela gutxi lehen edizioa agortu ondoren, Elkarrek bigarren edizioa kaleratu berri du. Horren ostean, *Kankaleko misterioa* (2013) eta *San Ferminetan, Lesakan* (2014) idatzi ditu. Baina Andueza betidanik izan da nobela beltzen zalea, eta orain dela urte eta erdi *La verdad sobre el caso Harry Quebert* irakurri zuenean eta ikaragarri gustatu zitzaionean, nobela beltz bat idazteko erronka proposatu zion bere buruari. Horrela, helduentzako eleberria den *Prime-Time* idatzi zuen. Eleberriak amaiera irekia duenez gero, jarraipena egiteko asmoa duen galdetuta oraingoz ez duela istorioarekin jarraitzeko planik erantzun du, “denborak erakutsiko digu”. Bere literaturari esker, “Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa” eta Bilboko “Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa” irabazi ditu.

Sarrera

Prime-Time John Anduezak idatzitako eleberria da. 2014an argitaratu zen, eta oraingoz plazaratutako edizio bakarra da. Nobela beltza da, irakurle helduei begira idatzitakoa. Misterio eta intrigaz betetako istorio hau telebista munduan dago girotua, eta 2013ko Bilbon. Ertzaintzatik kaleratuak izandako bi detektibe dira protagonistak, guztiz desberdinak direnak. Euren arteko desberdintasun horien ondorioz sortutako eztabaidak eta berebiziko garrantzia duen kasu bat argitu beharra dira obraren hari bideratzaileak, irakurlea amaierara arte engantxatzea lortuko dutenak, horixe baita eleberriaren helburu garbia.

Istoria erritmo arinean idatzita dago, narratzailea aldatuz. Batzuetan protagonisten ahotik kontatuta dago, beste batzuetan, aldiz, hirugarren pertsonako narratzaile baten ahotik. Saltoka-saltoka, plano ezberdinetan eraikita dago. Hizkuntza espontanea eta naturala erabilia, Anduezak sinesgarritasuna ematen dio narrazioari, eta elkarrizketak eta protagonistaren pentsamenduak barregarriak suertatuko zaizkio irakurleari.

Prime-Time

Kokapena

Esan bezala, eleberria telebistako munduan dago girotuta. Anduezak ondo ezagutzen du telebista, urte askoan izan baita arlo horretako profesionala. Eleberria mundu horren inguruan mugitzen da, eta mundu horretako hainbat alderdi aipatzen ditu, horietan gehiegi sakondu gabe.

Garaiari eta lekuari dagokionez, aipamen ugari egiten ditu 2013ko Bilbon gertatzen dela ondorioztatzen laguntzen dutenak. Egungo Bilboko gizartearen ezaugarriak agertzen dira obran, hala nola, Poza Lizentziatua Kalea (Bala eta Klementeren bulegoa dagoen kalea), Moyua, Termibus, Campo Volantin ibilbidea, Deustuko zubia, Errontegiko zubia, Zabalburu, Unamunoko Plaza, Jesusen Bihotza, Kasilda parkea, Iberdrola dorretxea... Horrez gain, Bilbo inguruko

herriak ere aipatzen dira, esate baterako, Lekeitio, Donostia eta, batez ere, Algorta: Arrigunagako hondartza (istorioko gertakari oso garrantzitsua bertan gertatzen delako), baita Portu Zaharra ere. Anduezak sarritan Euskal Herrian gertatzen ez diren eskandaluak kontatu ditu eleberrian, urrun sentitzen ditugun egoerak irakurleari bere ingurura hurbiltzeko. “Askotan uste dugu horrelako istorioak Estatu Batuetan bakarrik gertatzen direla”, azaldu zuen liburuaren aurkezpenean.

John Anduezak 2013an idatzi zuen liburua, eta istorioa urte horretako gizartean gertatzea nahi izan zuen, liburuari gaurkotasuna emateko. Hainbat adibide aipatu daitezke horren adierazle direnak. Hasteko, gaur egungo informatika eta teknologia aurreratuarekin erlazionatutako hainbat aipamen egiten dira, DVDA, ordeagailua, e-maila, iPhonea, WhatsApp mugikorrerako aplikazioa eta adobe Photoshop programa informatikoa, beste batzuen artean. Gainera, garai horretan famatuan izandako pertsonak, abestiak eta radio programak aipatzen dira, adibidez, Leonardo DiCaprio, *Oppa gangnam style* abestia edo Euskadi Gaztea radio emisioa. Horrez gain, aipatzekoa da Euskal Herriak bizi duen egoera ekonomikoaren inguruko aipamena egiten dela: “*Bi mila eta hamahiruko maiatzean, Euskal Herriko ekonomia krisialdi latzak astinduta dago.*” (143)

Pertsonaia nagusiak bi gizon dira: Bala eta Klemente. Istorioa aurrera doan heinean, beste pertsonaia batzuk agertzen dira. Maiz, pertsonaia baten inguruko ideia sortzen du irakurleak, baina istorioak aurrera egitearekin batera, sortutako ideia hori aldatzen du, hari buruz informazio berria irakurtzean.

Gaia

Telebistaren munduko tirabirak, bizitzan zorigaiztokoa izateak eragin dezakeen haserrea edo amorrua eta adiskidetasuna.

Obra hiru ideietan oinarrituta dago. Hasteko, idazleak telebista munduan suertatu daitezkeen eztabaidak azaleratzen ditu, eta argi eskaintzen dizkio irakurleari. Bigarrenik, istorioaren hari bideratzailea bizitzan zorigaiztokoa bihurtu den hiltzailea da. Eta, azkenik,

hirugarrenari dagokionez, bi protagonisten istorioa adiskidetasunean oinarritzen da, hasieran ezkutatuta dagoena baina amaieran azaleratzen dena.

Argumentua

Bala eta Klemente, Ertzaintzatik kaleratuak izan ondoren, detektibe pribatu bihurtu dira, eta berebiziko garrantzia duen kasu batean korapilatuta gertatuko dira: telebistako jauntxo baten gorpua agertu da Arrigunagako haitzetan txikituta. Suizidioa ala krimena izan den aztertzeko kontratatu ditu aktore batek. Baina horretan ari direla, kasua korapilatuz joango da, telebistako beste bi jauntxoren heriotzarekin erlazioa duela sumatzen hasiko direlako. Susmagarri baten baino gehiagoren atzetik arituko dira eta gorabehera batzuen ondoren hiltzailea nor izan den deskubritzea lortuko dute. Baina kasua argituta dagoela uste izan duten arren, agian ez da horrela, azken ustekabea amaieran jasotzen baitute.

Gertakizun nagusiak

1. Bala eta Klemente Ertzaintzatik botatzen dituzte Irrintzi Operazioan hanka-sartze galanta egin eta gero. Beraz, detektibe pribatu bihurtzen dira eta bere bulegoa irekitzen dute Bilbon.
2. Mandatu hutsalak izaten dituzte, aspergarriak eta garrantzirik gabekoak. Gehienetan, gainera, ez dute ezta bezerorik izaten.
3. Egun batean, Lukas Montxonen (aspaldian telebistan lan egiten zuen gizona) eskaria jasotzen dute kasu bat azter dezaten: Alex Aginaga, bere lagun mina, hilda agertu zen Arrigunagako haitzetan, eta poliziak suizidioa izan zela esaten badu ere, bere ustez norbaitek akabatu zuen gizona. Lukas kotxe istripu bat izan zela eta gurpil-aulki batean egotera behartuta dago.
4. Lukasekin bere etxean hitz egiten ari diren bitartean, gizonak telefono dei bat jasotzen du, eta hitz egiten bukatzean Balari telefonoa nonbait uzteko eskatzen dio, gurpil-aulkitik ezin delako altxatu. Balak, konturatu gabe, apal altu batean uzten du.

5. Lukasek hilabete eta erdi lehenago gertatutako Alberto Sotillosen (telebistako beste jauntxo baten) heriotza gogorarazten die eta bere lagunarenarekin erlazioa duelakoan dagoela aitortzen die.
6. Bi detektibeek kasua aztertuko dutela esan, eta bezeroaren etxetik joaten dira, baina berehala telefonoz deitu behar diote diru-kontuei buruz hitz egitea ahaztu zaielako.
7. Bala Arrigunagara doa, Alex Aginagaren heriotza errepasatzera. Ez du ezer arrarorik ikusten, eta deigarri gertatzen zaion gauza bakarra hari zelatan ari zaion emakume ilehori bat ikustea da.
8. Klemente, bere aldetik, Artxandara doa, Alberto Sotillosen heriotza errepasatzera. Aztertzen duen guztiaren arabera, suizidioa izan zela argi dago.
9. Bala Josu Aginagarekin (Alexen anaiarekin) hitz egitera doa, eta hildakoaren bizitzaren informazioa lortzen du.
10. Bala eta Klemente bi heriotzak suizidioak izan direla ondorioztatzen dute eta bi txosten idazten dituzte hori frogatzen duten argudioak azalduz. Ondoren, Lukas Montxoni erakutsi, eta bera ados ez egon arren, kasua bertan behera uztea erabakitzen dute.
11. Egun batzuk pasatu ondoren, Ernesto Gisasola (telebistako zuzendari nagusia) hilda aurkitzen dute bere etxean. Bala eta Klemente aurreko bi heriotzekin erlazioa izan dezakeela pentsatu eta Lukasi deitzen diote, kasua aztertzen jarraitu nahi dutela adierazteko, baina honek jada interesik ez duela adierazten die.
12. Ernesto Gisasolaren etxeko segurtasun-kameran emakume ilehori baten bideoa ikusi dutenez, ezaugarri horiek betetzen dituen emakumearen bila hasten dira. Alex Aginagaren idazkaria susmagarritzat jotzen dute.
13. Ernestok grabatutako irudiak hobeto aztertzean, etxean betaurrekodun eta bizardun gizona sartzen dela ikusten dute. Beraz, ezaugarri horiek betetzen dituen gizona bilatzen hasten dira.

14. Bat-batean, Balari burura etortzen zaio lehen aldiz Lukas Montxonekin hitz egin zuten aldia, eta telefonoa apalategi altu batean utzi zion arren, ondoren telefonoa hartzeko kapaza izan zela gogoratzen du. Beraz, Lukas gupil-aulkitik altxatzeko kapaza da eta gezurretan aritu zaie beti.
15. Lukasen pakete bat jasotze dute, barruan DVD bat duena. DVDan bere istorioa kontatzen du: kotxe istripua izan zuenetik barruko demonioak esnatu zitzaizkion, eta telebistan berriz sartzeko ahaleginean bere proiektua onartu ez zutenekin haserretu eta akabatu egin zituen: Alex Aginaga, Alberto Sotillos eta Ernesto Gisasola. Horretarako, bere ibiltzeko gaitasuna ezkutatu zuen eta emakume ilehori eta gizon bizardun gisara mozorrotu zen. Jendeak haien eskuzabaltasun ezaren berri izatea nahi zuenez, Bala eta Klemente detektibeak kontratatu zituen, benetako hiltzailea nor izan zen jakitea lortuko ez zutelakoan, baina hildakoen nortasuna agerian utziko zutelakoan. Bere istorioa kontatu ondoren, bideoan bertan bere buruaz beste egiten du.
16. Hala ere, Bala eta Klemente konklusio honetara ailegutzen dira: suizidioa Lukas aktorearen beste jardunaldi bat baino ez da eta hiltzaileak bizirik jarraitzen du.

Egituraketa

Eleberriaren egituraketa nahiko berezia da. Oro har, lineala da. Beste era batera esanda, istorio guztian egitura kronologikoa erabiltzen da, gertakizunak gertatzen diren ordenan kontatzen baitira. Hala ere, askotan *flash-back* modukoa da, protagonistei burura etortzen zaizkien oroitzapenak kontatzen direlako. Horren adibidea da Klementek bere iraganeko oroitzapenak kontatzen dituenean.

Denborari dagokionez, iragana, orainaldia eta etorkizuna aurkitu daitezke istorio honetan. Obra hiru zatitan banatuta dago: *Halabeharrez detektibe*, *Erraietako demonioak askatzen direnean* eta *Epilogoak*. Lehenengo zatia detektibe pribatu bihurtzen direnetik hirugarren heriotza gertatzen den arteko zatia da, eta iraganean kontatuta dago. Bigarrena, hirugarren heriotza gertatzen denetik

hiltzailea nor den deskubritzen duten arteko etapa da, eta orainaldian kontatuta dago. Azkenik, hirugarrena, hiltzailea nor den deskubritzen dutenetik Lukasen istorio osoa ezagutzen duten arteko zatia da, eta etorkizunean kontatuta dago: *“Eta amorruz begiratuko nauela nabarituko dut, txiste errazak ez diolako inolako graziarik egingo.”* (221)

Hiru atalak kapitulutan banatuta daude, bakoitzak izenburu bat duena. Atal bakoitza hasi baino lehen, *Epilogoak* izeneko Lukasen telebistarako proiektuaren atal bat dago, izenburu batzuekin adierazita: *Txosten baten pasartea*, *Telebista saio baten lehenengo atal pilotua* eta *Telebista saio baten bigarren atal pilotua*. Lehenengoa proiektuaren aurkezpena baino ez da, eta bigarrenean eta hirugarrenean Lukasek berak grabaturiko pasarteak deskribatzen dira, elkarrizketak direnak. Zati horiek orainaldian kontatuta daude. Aipatu beharra dago Lukas Montxonek grabaturiko DVDa eta berak grabaturiko pasarteak formatu bera dutela. Irakurleak ez du liburuaren egituraketa hori ulertzen harik eta liburua irakurtzen amaitu arte, baina istorioari intriga gehiago ematearren antolatu du horrela eleberria Anduezak.

Batzuetan letraren tamaina edo formatua aldatzen da, txostenak edo egunkariko artikulak edo titularrak direlako. Horrela, liburua irakurtzea errazagoa eta eramangarriagoa bihurtzen da.

Pertsonaiak

Protagonistak Bala eta Klemente dira baina beste pertsonaia asko daude. Bala eta Klemente hain desberdinak direnez, irakurlea bietako batekin identifikatuko da gehien, eta sinpatia handiagoa sentituko du batarengana edo bestearengana. Jarraian, bi protagonistak eta aipamen berezia merezi duen beste pertsonaia bat deskribatzen dira.

Bala edo Martin Balaguer

Berrogeita bi urteko detektibea da. Bere gorputza gustuko du, eta sasoi betean egotea garrantzitsua iruditzen zaio. Horregatik, bere tripak kurba biribil samarra hartu duela ohartzen denean berehala hasten da kirola egiten. Ez du inoiz zorte askorik izan bizitzan, baina hala ere optimista petoa izaten jarraitzen du. Ez da pertsona serioa, aldiz, umore onekoa da. Nahiko berekoia da, askotan besteengan pentsatzen ez duelako. Hala ere, ez dio inoiz gehiegi buruari eragiten, eta emakumeetan pentsatzen ematen ditu orduak. Hiru aldiz ezkontuta, eta hiru aldiz dibortziatutakoa da, betiko nerabe. Ez du gauzen inguruko hausnarketa sakonik egiten, eta bi aldiz pentsatu gabe jokatzeko du beti. Horregatik, agian, oso pertsona ahoberoa da. Idaztea eta txostenak egitea gorrotatzen du, eta orokorrean, lan egitea ere bai, izugarri alferra baita. Diskotekak gustuko ditu, baita emakumeekin eta festarekin zerikusia duen guztia ere. Taberna batean eserita erraz mozkortzen da, bere buruaren gaineko kontrola ez daukalako. Horregatik, beharbada, pobre ibiltzen da beti, diru eskasarekin.

Klemente Elustondo

Txikia, iharra eta betaurrekoduna da. Oso gizon praktikoa, langilea eta zuhurra da, gauzak asko pentsatzen dituena. Oso bakartia da, goibela eta serioa. Sentibera da, jendeagatik pena sentitzen du eta, horregatik, ez zaio notizia txarren mezulari izatea gustatzen. Ez da inorengan fidatzen eta ez du bere bizimodu intimoa inorekin konpartitzen. Oso gizon aurreztailea da, dirua inoiz gastatzen ez duena. Ez da inoiz ezkondu, ezta diskoteka batean emakume batengana hurbildu ere, kalte egingo dioten beldurrez edo. Pesimista eta tematia da. Detaile sinpleak gustatzen zaizkio eta arreta berezia jartzen du txikikeria hutsaletan. Oso iragan kaxkarra izan zuen. Mutil koxkor bakartia izan zen, eta maite zuen amarengandik lapurtua izan ondoren, maite ez zion ama batekin bizi behar izan zuen. Beraz, amaren etxea ez zen Klementerentzat inoiz aterpe goxoa izan. Ertzaintzan lan egiten zuenean, oso buru argia zuenez, anti-narkotikoetako kapitain-burua izatea lortu zuen, baina erabaki negargarria hartu eta postutik bota zuten.

Lukas Montxon

Oso pertsona sentibera eta atsegina dela diote bere lagunek. Baina, benetan, tipo azkarra da, guztiei aurpegira barre egiteko kapaza. Besteen aurrean gizon elbarrituaren itxura egin eta, bitartean, krimenak gauzatzeko kapaza da. Telebistan egiten zuen lan, baina kotxe istripu bat izan ondoren gurpil-aulki bati lotuta bizitzera kondenatuta geratu zen, eta telebistatik desagertu behar izan zuen. Zoritzarrak bere barruko demonio guztiak esnarazi zituen, eta berarekin zilegi jokatu ez zutenak mendekatu nahi izan zituen, bere ustez ez baitzuten bizitzea merezi. Pertsonaia hau da istorioren hari bideratzailea, krimenen atzean dagelako, baita kasua aztertzeko detektibeei deitzen diena eta bi protagonistak emakume ilehori hiltzaile baten atzean bidaltzen dituen ere.

Badira beste pertsonaia batzuk:

- **Alex Aginaga.** Telebistako jauntxoa, Arrigunagako haitzetan hilda agertu zena. Badugu Produzekzioaren sortzailea eta jabea. Gizon eskuzabala zen, bizitzaz zeharo maiteminduta zegoena.
- **Josu Aginaga.** Alexen anaia. Tipo hotza, zuhurra, kalkulatzailea eta berekoia.
- **Ernesto Gisasola.** Telebistako zuzendari nagusia, bere txaletan hilda agertu zena. Itzal handiko gizona zen, oso ondo kualifikatuta zegoena. Izugarritzko abilitadea zuen boterearen goiko esferetan mugitu eta beti onik ateratzeko.
- **Alberto Sotillos.** Kazetari zuhurra, telebistako programazio burua. Bere burua urkatu zuen Artxandan.
- **Edurne Bastarrika.** Alex Aginagaren emaztea. Emakume ederra, modernoa, bi seme dituena.
- **Laura.** Alex Aginagaren idazkari pertsonala. Emakume ilehoria, polita.

Baliabideak

Ulertzeko obra erraza da eta lexikoa ez da bereziki zaila, ezta erabiltzen diren egiturak ere. Alde horretatik eleberri erraza dela esan dateke.

Idazleak pertsonen deskribapen anitz egiten ditu. Fisikoki, eta batez ere, izaeraren aldetik, zehaztasun asko ematen ditu, horrela, irakurleari nolakoak diren imajinatzea erraztuz. Gainera, pertsonaia biribilak dira Anduezak deskribatzen dizkigunak, istorioan aldatuz joaten direlako. Dena den, idazleak ez ditu pertsonaiak bat-batean deskribatzen. Horren ordez, liburua aurrera egiten duen heinean, haiei buruzko datu gehiago ezagutarazten dizkio irakurleari.

Elkarrizketa ugari daude. Horiei esker, pertsonaiak euren artean nolako harremanak dituzten asma dezakegu. Horrez gain, pertsonaien izaerari buruzko pistak ere ematen dizkiote irakurleari. Elkarrizketak oso naturalak dira eta erabiltzen den hizkuntza kalean hitz egiten dena da, berezkoak dituen esapide eta hitzekin. Hona hemen horren adibide den pasartea:

—*Kaka puta, Klemente! Kaka puta! –eztanda egin dut orduan.*

—*Ze arraio gertatzen da orain? –harritu da bera, eta aulkian atzera salto egin du.*

—*Nik uste dudana zuzen baldin bada, tipo hori fartsante guztien kanpeoia da, jode!*

—*Nor, Lukas?*

—*Bai, Lukas kabroia!*

—*Azalduko didazu zertara datorren zafarrantxo hau?*

(198-199)

Idazlea kalean lagunekin izan ditzakegun elkarrizketak imitatzen ditu, eta oso ondo lortu du, obrari sinesgarritasuna emanaz.

Idazleak erabiltzen duen kontatzeko estiloa nahiko sinplea da, baina bitxia. Oso erritmo arinean kontatuta dago, filma bat izango balitz bezala. Telebistako gidoigintza eta kazetaritza hartu ditu oinarritzat Anduezak: *“Istoria saltoka-saltoka, plano diferentetan*

eraiki dut. Irakurlea nahiko argia izaten da eta ez du jarraitzeko arazorik izango". Eta zuzen dago, behin erritmo arinari ohituta, zailtasunik gabe jarraitzen baita irakurketa.

Istoriaa, kapitulu batzuetan, lehenengo pertsonan kontatuta dago, Balaren ahotsetik: «*Lurrunak lausotutako ispiluan nire tripak kurba borobil xamarra hartu zuela sumatu nuen.*» (57). Beste batzuetan, aldiz, narratzailearen ahotsetik kontatuta dago, hirugarren pertsonan: «*lazko azaroan Bala eta Klementek, Klementek eta Balak Bilbon zabaldu zuten detektibe bulegoa.*» (18). Aldaketa hori inolako irizpiderik jarraitu gabe egiten du idazleak. Kontatu nahi duenaren arabera, bata edo bestea erabiltzen du.

Barne-elkarrizketak nabariak dira eleberrian, batzuetan lehen pertsonako narratzailea dagoenez, pertsonaiak bere buruarekin izaten dituen elkarrizketak agertzen direlako: «*—Eta argi ibili, Txoronpio —gogoratu nion nire buruari parkeko bankuan eserita nengoela—. Berrogeita bi urteko Olentzero potoloek ez dute arrakastarik izaten nesketan egiten dutenean!*» (59)

Maila semantikoko baliabideei dagokienez, zenbait erabili ditu; baina batez ere esamoldeak, non-nahi aurki ditzakegunak. Batzuk aipatzearren:

—*Hor dago koska!* (16)

—*Zu ez zaude burutik sano.* (26)

Une batez eguneroko arazoak ahaztu, eta uso-pasan kontzentratu nintzen... (45)

Nire bizimodu soziala hutsaren parekoa da! (50)

Produkzioak zorretan itota zegoen. (54)

Lepoan hartu eta segi aurrera, Garmendia. (60)

Simaurra bezala tratatzen nauzu, hutsaren hurrengoa naizela pentsatzen duzulako, akaso. (81)

—*Badakizu zer gertatzen da batzuetan: usteak erdi ustel —gogoratu nion.* (92)

—*Goian bego bata, eta goian bego bestea...* (93)

Funeralean apenas hitz egin nuen minututxo bat berarekin, justu-justu doluminak emateko. (255)

Iritzia

Aztergai izan dugun obra ez da oraindik oso arrakastatsua, atera berria delako. Baina denborarekin, famatuagoa bihur daiteke. Izan ere, irakurtzen erraza eta entretenigarria da. Gainera, euskal literaturan oso ohikoak ez diren gaiak lantzen dituen eta telebista munduan giro tutako nobela beltza denez, oso originala dela esan daiteke.

Erabat desberdinak diren bi detektiberen joan-etorriak eta hausnarketak ezagutzen ditugu, amaiera kurioso eta tupusteko batekin. Idazleak, liburu honekin, bizi garen lekuan ohikoak ez diren egoerak ekarri nahi izan dizkigu esku artera. Intriga eta misterioa nagusitzen dira liburuan, baina Anduezak lekua uzten du gai sentimental eta hunkigarrientzat, baita dibertigarrientzat ere.

Balak eta Klemetek aurkako izaerak dituzte, eta gure eguneroko bizitzan seguru ezagutzen dugula bakoitzarekin erlazionatzen dugun pertsona bat gutxienez. Irakurleak ere bere burua pertsonaia batekin bestearekin baino gehiago erlazionatuko du, eta sinpatia handiago sentituko du batengana bestearengana baino. Hala ere, biak, bakoitza bere izaerarekin, atseginak suertatzen dira, eta bien arteko talkak dibertigarriak irudituko zaizkio irakurleari.

Istoria interes psikologikoa izan dezake. Lukas Montxon hiltzailea bihurtzen da bere bizitza hondatuta ikusten duenean. Berak esaten duen moduan, betidanik izan ditu demonioak barruan, eta bizitzan zorigaiztokoa izaten hasten denean guztiak esnatzen zaizkio aldi berean eta hiltzailea bihurtzen da: «...*beti jakin dut, gauzak itsusi jarritz gero, egunen batean hiltzaile bihurtuko nintzela.*» (224). Aipatzekoa da bere lagun mina hiltzeko kapaza dela, txarto sentitu barik. Gainera, argumentu konplikatuak sortzeko eta inguruko pertsona guztiak engaiatzeko gai da, baita bere helburua lortzeko gai ere: ikus-entzuleen arreta era atentzioa berriz ere lortzea. Berak esaten duen moduan «...*aktorerik xumeenak ere merezi du bere publiko maitearen azken txalo zaparrada jasotzea.*» (271).

Seguru badaudela Lukasen egoera berbera bizi duten pertsonak. Istorio hau irakurri ondoren hausnarketa egin beharko genuke, eta pertsona ahulei laguntzeko ahalegina egin beharko genuke, bizkarra eman ordez, Alex Aginaga, Alberto Sotillos eta Ernesto Gisasolak Lukas Montxonekin egiten duten moduan.

Lukasek telebistarako saio bat proposatzen du: *Epilogoak*. Horren arabera, heriotzaren atarian dauden pertsonaia ospetsuei elkarrizketa sakonak egingo zaizkie, azken testigantzak emateko aukera eskainiko zaie, eta dokumentu horiek protagonistak hil ondoren emitituko dira. Telebista saio oso interesgarria da Lukasek proposatzen duena, ideia oso originala. Aipatzekoa da, azkenean, berak sortutako saioaren protagonista absolutua bihurtzen dela, edo behintzat, hori da jendeak pentsatzea nahi duena. Lukasek grabaturiko bere programa *Prime-Time* ordutegian igortzea eskatzen du, audientzia errekor guztiak txikituko dituela uste duelako. Hortik dator liburuaren izenburua. Ikus daitekeenez, Lukas pertsona oso argia da, eta pena da bere intelijentzia beste batzuen kontra erabiltzea.

Mota askotariko eszenek osatzen dute istorioa baina, beharbada, aipamen berezia merezi dute Klementek (nahiz eta ez den inorekin fidatzen), bere bizimodu intimoa Balarekin konpartitzen duenean. Bala Klementeren egoeran jartzen den lehenengo aldia da, eta baita bere laguna ulertzen duen lehena ere: «*Orain ulertzen du zergatik den hain berezia, hain espeziala, hain zuhurra, hain kopetiluna, hain goibela, hain arraroa, hain bakartia.*» (176)

Lehen esan bezala, ulertzen erraza den obra da. Deskripzio ugari eta aberatsak dituen, baita sentimenduen adierazpen anitz ere, ez da zaila pertsonaiak inguratzen dituzten eta bizitzen dituzten egoerak imajinatzea. Horrela, erraza da pertsonaiei gauzak egitera bultzatzen dieten zergatiak ulertzea. Hala ere, bizitzako zenbait alderdi sakon jorratzen dira, heldutasun maila jakin bat eskatzen dutenak. Hori dela eta, ez da 16 urtetik beherakoentzat, eleberria bere osotasunean ez luketelako ulertuko.

Laburbilduz, obra originala eta entretenigarria da, gustura eta jakin-minez irensten diren horietakoa. Gainera, istorioaren amaiera zein den badakigula pentsatuko dugun arren, ezustekorik ez da faltako.

Bibliografia

Prime-Time, John Andueza. Elkar.

Elhuyar hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

Webgrafia

- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2014/11/25/ocio-y-cultura/nobelaren-trama-potentea-iruditzen-zait>
- <http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/john-anduezaren-lehen-nobela-beltza-prime-time-primera-novela-negra-de-john-andueza-prime-time/>
- <http://silohasleido.blogspot.com.es/2015/02/resenas-para-leer-en-el-autobus-spies.html>
- <http://www.diariovasco.com/20091218/cultura/andueza-john-andueza-20091218.html>
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/john-andueza-altuna>